

HOGEITA BOSGARREN BILERAKO akta

BIZKAIKO INDARKERIA MATXISTAREN BEHATOKIA

Lekua eta ordua: 2020ko ekainaren 11n, 10:00etatik 12:00etara

Tokia: Bideokonferentzia bidez egin zen bilera.

Gai-zerrenda:

1. Ongi-etorria eta dokumentazioa entregatzea.
2. Gai-zerrenda irakurtzea.
3. Aurreko bilerako akta onestea.
4. Behatokiaren atxikitze aldaketa.
5. 2019ko Behatokiaren jardueren memoria aurkeztea.
6. 2020rako behatokiaren lan plana.
7. 2019ko arreta zifren aurrerapena.
8. Galderak eta eskaerak.
9. Agurra eta hurrengo jarduketak.

Bertaratuak: **Presidentetza:** Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua: M.^a Teresa Laespada andrea.

Presidenteordetza: Berdintasuneko zuzendari nagusia: Patricia Campelo andrea.

Idazkaritza: Berdintasuneko goi teknikaria: Alixe Rodríguez andrea.

Mahaikideak:

- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Berdintasuneko ZN): Cristina Sarduy andrea
- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Gizarte Inklusioko ZN): Oscar Seco jauna eta Lola Menchaca andrea
- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Lankidetzeta eta Aniztasun ZN): Ignacio Rodríguez jauna
- BFAko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila: Esther Glez. de Audikana andrea
- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Institutua: Izaskun Landaia andrea
- EJko Segurtasun Saila: Ana María Reka andrea
- EJko Enplegu eta Gizarte Politika Saila: M.^a Antonia Olabarrieta andrea
- EJko Osasun Saila: Frumen Molinero jauna
- EJko Lan eta Justizia Saila: Iñaki Basauri jauna
- Hezkuntza Saila: Olatz Garamendi andrea

- Udalerriak eta amankomunazgoak- EUDEL:
 - Gordexolako Udala: Beatriz Atienza de Mingo andrea
 - Barakaldoko Udala: María Solar andrea
 - Fruizko Udala: Ane Legarretaetxebarria andrea
- Elkarrekin eta erakundeak:
 - *Genero indarkeriaren alorrekoak*:
 - ARGITAN emakumeentzako arreta zentroa: Karmele Ozaita andrea
 - AUZOLAN laguntza psiko-sozialeko modulua: Marta Dolado andrea
 - *“Emakumeentzako eta gizonentzako elkarrekin foroa” ordezkatzuz*:
 - BIDAYA elkarteak: Mariam Elharrak andrea

Materialak:

Bileraren aurretik, agiri hau banatu da:

- “GIBBen 2019ko jardueren memoria”.

Jorratu diren gaiak:

1. Bertaratuei ongi-etorria eman die M.ª Teresa Laespada andreak.
2. Gai-zerrenda irakurri du Patricia Campelo andreak.
3. Aurreko bilerako akta onetsi du Patricia Campelo andreak.
4. Behatokiaren adskripzioa aldatu du Teresa Laespada andreak.
5. “2019ko Behatokiaren jardueren memoria aurkeztu du” Patricia Campelo andreak.
6. 2019ko zifren aurrerapena aurkeztu du Patricia Campelo andreak.
7. “2020ko Behatokiaren lan plana aurkeztu du” Patricia Campelo andreak.
8. 11:45ean bilera bukatutzat jo du M.ª Teresa Laespada andreak.

BILERAN JORRATU DIREN GAI NAGUSIAK ETA EGIN DIREN ESKU-HARTZEAK***Behatokiaren adskripzioa eta izena aldatzea:***

M.ª Teresa Laespada andreak:

- Azaldu du, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailean barne hausnarketa bat egin dutela, eta, ondorioz, Behatokiaren adskripzioa aldatzea erabaki dutela. Hala, Gizarte Inklusiorako Zuzendaritza Nagusitik (bertan dago Emakumeentzako eta Familia Esku-Hartze Zerbitzua eta horixe da jatorrizko adskripzio organoa, Lola Menchaca andrearen jurisdikzioan), Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusira aldatuko da, Cristina Sarduy andrearen jurisdikzioan.
- Zentzuzkoa da Behatokia Berdintasuneko Zuzendaritzan birkokatzea, izan ere, berdintasun politikak zeharkakoak izan behar dira aldundi osoan eta Bizkaia guztian. Beraz, leku egokia da behatu behar

diren eta gizartean aldaketak ezartzeko garrantzia politikoa duten eta berdintasuna aldarrikatzeko erabilgarriak diren datuak jasotzeko.

- Bereziki goraipatu du Berta Díaz Arbesú andreak -Emakumeen Ataleko buruak- Behatokia zuzendu duen 17 urteetan egindako lana, izan ere, 2003an sortu zenetik, bera izan da zuzendaria; horrez gain, Lola Menchaca andrearen lana ere azpimarratu du, Emakumearen eta Familia Esku-Hartze Zerbitzuko burua delarik.
- Adskripzioa aldatzean eta beste gauza batzuen artean azken hauteskundeetako emaitzak ikusirik, Osoko Bilkura berri egin da 2019an egin zen azken bileraz geroztik. Aurretik, Osoko Bilkurako parte-hartzaileak izan direnei egindako lana eskertu die, honakoei, hain zuzen ere: Oscar Seco jauna -Gizarte Inklusioko zuzendari nagusia- aurreko organoko presidenteordea izan zena; mahaikideak: Susana González andrea, Enpleguko zuzendari nagusia; EUDELen ordezkariak (Ibón Uribe jauna, Jane Eyre Urkieta andrea eta Beatriz Gamiz andrea); eta Emilio Germán Sola jauna, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendaria. Horrez gain, Anselmo Ardanza Sustatza jaunari ere eskerrak eman dizkio; bera izan da Behatokia martxan jarri zenetik Herri Administrazio eta Erakundearen Arteko Harremanetarako foru sailaren ordezkaria eta erretiroagatik baja hartu du.
- Behatokiaren presidenteak esan du baita ere bilera honetan organoaren izena aldatu dela, aurreko osoko bilkuran aipatu zen moduan, eta, aurrerantz, Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia izango dela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Arauan jasota dagoen moduan.
- Esan du ez dela bakarrik izen aldaketa, izan ere, kontzeptua bera berrikusiko baita. Horrez gain, emakumeen aurkako askotariko indarkeriekin lotutako adierazle berriak sortuko dira eta indarkeria neurtzeko tresnak egokituko dira; hori guztia egiteko berebiziko arreta eskainiko da, eta, ondorioz, behatokiak lanean hasi zenetik jasota dituen datu-serieak ez dira kaltetuko.

Izaskun Landaida andreak:

- Aipamen berezia egin die une honetara arte behatokian lan egin dutenei, bereziki azpimarratuz Berta Díaz Arbesú andreak egindako lana.
- Lantalde berriko kideei onena oparo die.

Karmele Ozaita andreak:

- Esan du Argitan-ek Behatokian parte hartzen duela 2004. urtetik aurrera, eta horri dagokionez, honakoa balioztatu du: "Berta Díaz Arbesú eta Lola Menchaca emakumeek egindako lana, izan ere, dena martxan jartzea beti da zaila. Erakundearen arteko koordinazioa badijadi gaur egun erraza dela, baina hasieran, ia ezinezkoa izan zen; eta datuak jasotzea oso zaila zen, horrez gain, ia baliabiderik ere ez zegoelarik".

(Karmele Ozaita andreak mezu elektroniko bat bidali du bilera bukatzean, arazo teknikoak direla-eta ezin izan duelako unean bertan hitz egin. Kurtsibaz idatzita dago mezua, hitzez hitz).

2019ko Behatokiaren Jardueren Memoriaren aurkezpena:

Patricia Campelo andreak azaldu du 2019ko Behatokiaren Jardueren Memoria, jarduera alorren inguruan egituratuta dagoena.

Administrazio eta funtzionamenduko jardueren atalean, Osoko Bilkurak 2019an egindako bilerei eta lantaldearen jardueri buruzko informazioa eman du.

Behatokiaren informazio sistemari dagokionez, 2019an egindako datu jasotze prozesuari buruzko informazioa eta informazio iturriei buruzko azalpenak eman ditu eta datuak jasotzeko tresnak aipatu ditu.

Ondoren, Bizkaian emakumeen aurkako indarkeriaren alorreko ezagutzak hobetzeko, aldi horretan sortutako produktuak azaldu ditu, bai arretaren ingurukoak, bai baliabideen eskuragarritasunari buruzkoak: 2018ko zifren aurrerapena, 2018ko zifren txosten osoa, 2019ko udaleko informazio orria, 2019ko baliabideen katalogoa eta 2019ko baliabideen atlasa. Horrez gain, baliabideen datu-baseari dagokionez eta webguneko datu bibliografikoen datu-baseari dagokionez egindako lana azaldu du.

Memoriari buruzko azalpena bukatzean, esan du webgunean eguneratzeak egin direla eta hedapen aldizkariako zenbakiak sortu direla.

2019ko zifren aurrerapenaren aurkezpena:

Patricia Campelo andreak 2019an Bizkaiko zerbitzu publikoek emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean gauzatutako arretaren zifren aurrerapena aurkeztu du. Hala, gizarte, polizia, epailetza eta osasun alorretako esku-hartzeetako programen eta zerbitzuen lehen emaitzak azaldu ditu. Aurrerapenen txostena uztailean Behatokiaren webgunean eskuragarri egongo dela esan du.

2019ko adierazle orokorrak eta ikuspegi zehatz batekin hitz egiteko eta joerak aztertzeako bilakaera datuak azaldu ditu.

Patricia Campelo andreak:

- Esan du pandemiaren ondoriozko salbuespenezko egoerak Behatokiak datuak jaso ahal izatea oztopatu duela, eta, beraz, argitaratze epeekin eta txostenaren edukiekin arazoak dituztela, izan ere, ezin dute data hauetan ohikoa izaten den moduan, erakundeen informazio guztia izan.
- Gizarte alorrean honako gaietan garrantzitsuenak diren datuen xehetasunak eman ditu: harrera, aholkularitza juridikoa, arreta psikologikoa, Elren biktima diren emakumeengan espezializatutako familia esku-hartzea, Elren biktima diren adingabeetan espezializatutako familia esku-hartzea 900 840 111 telefono zenbakiaren bidez, laguntza ekonomikoak eta etxebizitza.
- Ertzaintzak jasotako polizia datuak azaldu ditu, beste urte betez, 2003tik aurrerako serie historikoan gehieneko kopuruak erregistratu dituztelarik. Datuak, honako alorretakoak dira: alor judizialekoak (Bizkaia dagozkion Botere Judizialeko Batzorde Orokorraren datuak aurkeztu ditu); eta Osasunaren alorrean, Larrialdietan eta Lehen Mailako Arretan detektatutako kasuei buruzko emaitzak azaldu ditu, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren informazioan oinarrituz.

- Bukatzeko, arreta eskarien bolumena mantendu egin dela esan du, arretarako baliabide gehienetan mantendu eta hazi egin delarik; beste urte betez, datuek adierazten dute gehikuntzak egon direla aurreko urtearekin alderatuz baliabide eta programa gehienetan.
- Azpimarratu du Behatokiak egiten duen lana itzela dela, eta sortutako informazioa oso erabilgarria dela esan du, izan ere, tresna horri esker, lurraldean emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea nolakoa den dakigu, datu objektiboak jasotzen direlarik.

Izaskun Landaia andreak:

- Egindako azalpena eskertu du, oso interesgarria dela uste baitu eta erabakiak hartzeko informazio baliagarria dela adierazi baitu.

2020ko Behatokiaren lan-planaren aurkezpena:

Patricia Campelo andreak 2020ko Behatokiaren jardura plangintzaren ildo orokorrak azaldu ditu, eta urtea hasi denetik une honetara arte gauzatutako zeregin ohikoei buruzko informazioa eman du.

Patricia Campelo andreak:

- Azaldu du Behatokiak ekitaldi honetan gauzatu beharreko lan plana hausnarketa eta erronka testuinguruan kokatzen dela, indarkeria matxista, adierazleak eta hedapena kontzeptualizatuko direlarik.
- Esan du lantaldea ezinbesteko eragilea dela behatokiaren izen aldaketatik eratorritako kontzeptualizazioa egiteko eta adierazle berriak zehazteko.
- 2020. urtea lau urteetako jardura ixteko ekitaldia dela azaldu du, eta horrenbestez, dagokion ebaluazioa egin behar dela. Horretarako, Osoko Bilkura osatzen duten guztien lankidetzak eskatuko da, ohikoa den moduan.
- Esan du hurrengo hilabeteetan Behatokiaren webgunea berrituko dutela, emaitzen eta produktuen hedapena hobetzeko, hain zuzen ere.

Karmele Ozaita andreak:

- Adierazi du Argitan elkarte feminista eta emakumeei arreta emateko zentroa dela, eta, horrenbestez, bat egiten dutela 2020rako Behatokiaren lan planean jasotako erronkekin.
- Kontzeptua berrikustearen alde dago, indarkeria matxistaren kontzeptua gehituko delarik.
- Esan du Behatokia martxan dagoen urte guztietan zehar jasotako adierazleen informazioak erraztu egingo duela beste behar batzuetarako horiek hedatzeko lana.
- Azaldu du garrantzitsua dela baliabideei eta horien hedapenari buruzko informazio eguneratua izatea: “ezinbestekoa da baliabideak sortzea, gehitzea eta kudeatzea, hala, emakumeek jakin dezagun nola eta nora joan behar dugun indarkeria egoeretan. Berezi garrantzitsua da tresnak errealak izatea, eta ez bakarrik baliabideen mapan jasota dauden puntu adierazleak”.

(Karmele Ozaita andreak mezu elektroniko bat bidali du bilera bukatzean, arazo teknikoak direla-eta ezin izan duelako unean bertan hitz egin. Kurtsibaz idatzita dago mezua, hitzez hitz).

Beste gai batzuk:

M.^a Teresa Laespada andreak:

- Esan du 2020ko martxoan bi emakume erail dituztela Bizkaian, bat Abanton eta bestea Zierbena-Abanton.
- Osasun larrialdiari dagokionez esan du Emakunderekin elkarlan estuan aritu dela egoera ezezagun batean, eta lan handia egin dutela, zerbitzuentzako zaila izan dena.
- BFAk larrialdiko foru baliabide bat ireki zuen indarkeria matxista kasuetarako, egoitza eskaintzeko. Hala ere, itxialdi hilabeteetan ez zen aurreikusi zuten kasuen igoerarik egon, baina bilera egin denean, hau da, itxialdia bukatzean, zerbitzuetan sartzen ari diren kasuak gehitzen ari dira.
- SATEVI telefonoa erabiliz, "Maskara-19" kanpainaren bidez, farmaziekin ezarritako kudeaketak eta prozedura azaldu ditu.

Ana Reka andreak:

- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak Behatokia martxan jarri zenetik izan duen parte-hartzea eta egindako lana aipatu ditu.
- Sailak azken bi urteetan jorratutako bi gai aipatu ditu. Lehenengoa, Bortxa telefonoaren sistema aldatzea: Bortxaren zerbitzu berdina eskaintzen duen App bat sortu dute, Ertzaintzak instalatzen duena biktimaren telefono mugikorrean, eta, beraz, ez da beharrezkoa terminal ezberdin bat izatea horretarako. Horrez gain, esan du, arreta zerbitzuak ematean, tokiko poliziekin dagoen koordinazioa hobetu dela, eta, bereziki, arriskua baloratzeko tresna homogeneousak eta eraginkorrak izatea azpimarratu du, izan ere, Ertzaintzak alor horretan esperientzia handia du.

Beatriz Atienza de Mingo andreak:

- Ofiziozko Txanda Espezifikoa (letratu gisa parte hartzen du bertan) egiten duten lana baliozkotu du.
- Adierazi du zenbaitetan indarkeria txandetan parte hartzen duten eragileen artean arazoak egoten direla. Zehazki, esan du, batzuetan txandan ez dutela jakinarazpenik jasotzen emakume bat komisariara joaten denean salaketa jartzera, eta, lehenengo une horretan esku-hartzen ez bada, ondoren, zailtasunak egoten direla azaldu du.

M. ^a Antonia Olabarrieta andreak:

- Esan du, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren ordezkari berria den heinean, plazer handia dela Behatokian parte hartzea.
- Gaineratu du, etxeko indarkeriaren edo sexu arrazoien ondoriozko indarkeriaren emakume biktimei informazioa eta arreta emateko Zerbitzu Espezializatuan (900 840 111 telefono zenbakiaren bidez ematen dena) gorrekin duten komunikazioa hobetu dutela, eta, hori, aurrerapauso garrantzitsua dela zerbitzuarentzat.

Lortutako akordioak

1. Aurreko bilerako akta onestea.
2. Bilera honetan azaldutako dokumentuak baliozkotzea.

Sin./Fdo.: ALICIA RODRIGUEZ GIL - 2021-07-01

BERDINTASUNA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN BERDINTASUNA SUSTATZEKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA
TÉCNICO/A SUPERIOR DE IGUALDAD DE DIRECCIÓN GENERAL DE IGUALDAD